

3. GAIA: Ikas-zailtasunak eta aniztasunari arreta

3.1 Ikaskuntza-zailtasunak

Guri dagokigunez, garrantzitsuena ez da izango ikaskuntza-zailtasunen zehaztapena edo diagnostikoa, baizik eta zailtasun horiek sortzen dituzten beharrak, eta behar horiei emango zaizkien erantzunak. Hau da, ikaskuntza-zailtasunek sortzen dituzten beharrak abiapuntutzat hartuz, zailtasun horiei erantzuna ematea da interesatzen zaiguna.

Ikaskuntza-zailtasunen eta aniztasunaren inguruan bi ikuspegi gailendu dira:

- **Urritasunari/defizientziari loturikoa.** Aniztasunari arretak kutsu negatibo hori izan du tradizionalki. Ikuspegi honen arabera, ezberdintasunak gutxi batzuei dagozkie, eta beraz, denak modu batean edo bestean ezberdinak garenaren ideia ez da onartzen. Talde baten zerbait espezifikoa bezala hartzen da ezberdintasuna, eta homogeneizazioa ematen da. Hain zuzen, normalak ez diren horiek normaltzean datza homogeneizazio hori; normalak direnen mailara iristean jartzen dute arreta. Segregazioa ematen da, ezinbestez.

Hala ere, geroago, *hezkuntza berezia* izeneko arloa agertu zen. Honek, defizientziei arreta jartzen dien arren, onartzen du gizabanakoak ezberdinak garela, eta ikasleen mugetan erdiratsetik urrun, beren potentzialean edo gaitasunetan jartzen du arreta. Hala, egia da muga, zailtasun edo hutsune horiek aztertu behar direla, baina ikasle guztiek izan ditzaketen hutsune edo zailtasunak aztertu behar dira. Ildo horretatik, testuinguru estimulatzaile bat sortu nahi da ikasle guztientzat, eta horrek, gaitasunetan erdiratzea inplikatu du.

- **Ezberdintasunen barneratzeari loturikoa.** Kasu honetan, ezberdintasunak onartzen dira, eta hauek sortzen duten heterogeneitatea bultzatzen da. **Ikasle bakoitza ezberdina den heinean, ebaluazio indibidualizatua egingo zaio eta integrazio-prozesu bat martxan jarriko da.** Eskola inklusiboa kokatuko genuke ikuspegi honetan.

Hala ere eskola horrek, defizientziei arreta jartzen hasten da, defizientzietan oinarritutako proposamenak egiten ziren (momento batean azkenean, onartu egiten da pertsona hriek ikastolara joatea baino heburu zuzentzaile batekin). Gizabanakoak desberdinak gara, eta arreta defizientzietan/mugetan jarri beharrean ikasle horrek egin dezakeen jarriko dugu. Hala ere, mugak ebaluatu egin behar dira. Ideai: testuingurua, estimulatzailea, ahalik eta kalitate gehienekoa izatea... gaitasunetan mugetan baino arreta gehiago. Gaur egun ikuoutu tradizionala gainditzen ari gara. Ikuspuntu modernoagoa, iada ez du ikasle goa deficiente, normala ez normala erabiltzen.. taldekatze horiez da erabiltzen. Ikasle bakoitza desberdina dela eta hezkuntza plan indibidualizatu bat behar dela pentsatzen da. Inklusioa eta integrazioa ez dira gauza bera. Orain iada, aniztasunari arreta jartzen diogu. Ikasle bakoitzaren ahalik eta garapen handiena, osoena lortu nahi dugu (helburua, ahalik eta gorena) eta minimo batzuk ezarriko ditugu denontzat. (helburua hortaz indibidualizazioa eta garapen osoa). Garapen osoak eskatzen duena da desberdintasunak errespetatzea.

Gaur egun, ikuspegi tradizionala gainditzen ari gara, eta hezkuntza berezia nahiz aniztasuna beste modu batera ikusten dugu; izan ere, ikaslea ez da normal (ez-defiziente) edo anormal (defiziente) gisa sailkatzen. Gainera, ikasle bakoitza ezberdina denaren ideia nagusitzen da, eta hezkuntzan, ikasle bakoitzarentzat plan indibidualizatu bat egitea bilatzen da.

Hezkuntzaren oinarrizko helburua ikasleak gizarteratzea izango da; eta, are gehiago, indibidualizazioa edo norberaren garapena sustatzea eta bermatzea. Horrek, ezberdintasunak errespetatzea eskatuko du. Aniztasuna continuum bat bezala ulertuko bagenu, bertan edozein pertsona sartuko litzateke, denek izango lukete lekua continuum horretan.

▪ Warnock agiria

Britainia Handiko Hezkuntza Ministerioak Mary Warnok-i ikerketa bat egitea eskatzen dio; hain zuzen, ikaskuntza-zailtasunak dituzten pertsonak eskola-testuinguruetan zein egoeran dauden aztertzea eskatzen zai. Ildo horretatik, “hezkuntza behar berezia/espezifikoa” zehazten du: **eskolako curriculumaren testuinguruan, ikasle batek ikasle gehiengoaren erritmo eta modu antzeko batean aritzeko izan dezakeen zailtasuna, honen jatorria eta izaera edozein izan daitekeelarik**. Zentzu horretan, *defizientzia* eta *desegokitze* terminoak ordekatu egiten ditu; LOGSE legean ere honakoa biltzen da.

WARNOCK-en DOKUMENTUA: ikaskuntza-zailtasun bat izango dugu ikaslea ez bada gai gehiengoaren erritmora joateko. iZ duen horrek gero beharra izan dezake, elkarrekintzan sortzen dena: ikaslearen ezaugarriak eta testuinguruaren (eskola-zentroaren) baldintza eta ezaugarrien arabera.

3.2 Definizioak

- Hezkuntza berezia.

Baliabide multzo hori ikastetxeak martxan jartzen duena ikasleen hezkuntza behar espezifikoei aurre egiteko

- **Ikaskuntza-zailtasunak.** Ikaskuntza-zailtasunen etiologiaren araberako sailkapenak zehazten dituzten eskuliburuak daude, baina horiek ez ditugu hizpide izango; hau da, ez zaigu inporta zein garapen-nahaste (komunikazioan, arrazonamenduan...) dituen gizabanakoak, baizik eta zein behar dituen. Ildo horretatik, kontzeptu zabala eta heterogeneoa da.

“Ikaskuntza-zailtasuna” kategoria deskriptibo bat da; izan ere, gizabanakoa deskribatzen duen ezaugarri intrintseko bat litzateke. Hortaz, fokua indibiduo jakin batengan jartzen du.

- **Hezkuntza Behar Espezifikoak (HBE).** Kasu honetan, beharra ez da gizabanakoan ardazten, baizik eta testuinguruan. Hots, testuinguruaren arabera, ikaskuntza-zailtasuna hezkuntza behar espezifikoa izango da ala ez. Azken batean, ikaslearen zailtasunek dakartzaten beharrak asetzeko testuinguruko baliabideak ez badira eraginkorrak edo ez badira existitzen, hezkuntza behar espezifikoak sortzen dira. Nolabait, haustura ematen da gizabanakoaren beharren edo zailtasunen eta berau inguratzen duen testuinguruaren artean.

Testuingurua denez HBEak eragiten dituenak, kontzeptua ez da kategorikoa izango (ikaskuntza-zailtasunen kasuan bezala), baizik eta erlatiboa eta interaktiboa; izan ere, eskola-testuinguru batean egokituta eta integratuta dagoen ikasle bat, beste eskola-testuinguru batean HBEak dituen pertsona izan daiteke.

1. **Hezkuntza behar espezifikoak: ez da baldintza pertsonala, ez da gizabanakoa arduratu bere ezaugarrietaz**
 - a. **Erlatiboa da, eskolaren araberkoa delako**
 - b. **Elkarrekintzazkoa da, hezkuntza testuinguruaren araberkoa izango delako**

- c. Beraz, hezkuntza behar espezifikokoak, ikaslearen ezaugarrien eta eskolak eskaintzen dionaren artean haustura dago
 - i. Berezi egiten duen hori, ikasleak dituen ezaugarriak egingo dute
- d. Bi ideia garrantzitsu azpimarratu: Ikaskuntza zailtasunak ezdaudela berezagarri propioetaz bakarrik baldintzatuta, ikastetxeak ere eragina duela
 - i. Hau da, bien harteko elkarrekintzaren ondoriozkoa da
 - ii. Bigaren ideia garrantzitsua da, hezkuntza bhear bihurtzearen ardura eskolarena dela

Laburbilduz, ikaskuntza-zailtasuna ikaslearen ezaugarri intrintseko gisa jotzen da, ikasleari esleituz bere baldintzen ardura. Aitzitik, HBEen kasuan, testuinguruak luke garrantzia. Ikaskuntza-zailtasuna HBE bihurtuko da hezkuntza-zentroaren baliabideak ez direnean nahikoak ikasle horren ezaugarriari erantzuteko. Beraz, testuinguruak bihurtzen du zailtasun bat behar batean.

3.3 Aniztasunari arreta

Tradizionalki, hezkuntza berezia urritasun eta defizitarekin lotua izan da. Hala, pertsonarteko ezberdintasunak aintzat hartu dira talde minoritario baten zera gisa, eta ez aniztasunaren agerpen gisa.

Egun, segregazioaren eskolatik integrazioaren eskolara pasatu gara, homogeneousazioa aniztasunagatik aldatuz, eta arreta hezkuntza behar berezietara bideratu da, defizientziak alde batera utziz. Beraz, ez da defizienteak direnen eta ez direnen arteko banaketa zilegiztatzen. Aitzitik, ikasle bakoitza ezberdina dela aldeztzen da, eta hauen arteko ezberdintasun indibidualekiko errespetua bultzatu nahi da, norbere gaitasun guztien garapen osoa helburutzat duen hezkuntzan.

Aniztasuna kontzeptu zabala da, non barne-hartzen diren: ikaskuntza-estilo anitzak, adimen-ezberdintasunak, ikaskuntza-zailtasunak dituzten pertsonak, minoria etniko eta kulturalak, arrisku-taldeak, eta abar.

Laburbidez, Hezkuntza Berezia, urte askoan, ahalmen-urritasuna duten ikasleen hezkuntzat hartu izan da. Hezkuntza-premia berezien kontzeptua agertzean, ikuspegi hori aldatzen hasi da; hezkuntza-sistema bera dela hezkuntza-erantzun egokia eman behar duena ulertu da, integrazioaren alde jokatzuz. Eta, gaur egun, beste erronka bat hartzen hasi gara; hau da, eskola inklusiboarena.

▪ Hezkuntza berezia eta orientazio psikopedagogikoa

La educación especial persigue preparar, mediante una adecuada orientación y la respuesta educativa que se precise, a los sujetos con necesidades educativas especiales para que puedan incorporarse lo más plenamente posible a la vida social, así como al mundo laboral. La educación especial debe atender, por tanto, a las características de cada alumno de forma individualizada, adaptando los programas, los métodos y los recursos de la educación general, y creando recursos complementarios de apoyo con la finalidad de promover la integración social, laboral y escolar. Esta educación integradora pretende dar una nueva visión y concepción de la escuela, abriéndola a la diversidad.

Gaur egungo Espainiar Estatuko hezkuntza bereziaren konfigurazioan, bi erreferentzia nagusi bereiz daitezke:

- LISMI (1982)

Lege honetan lau printzipio definitzen dira, zeinak lege bihurtzen diren, hezkuntza-zentroetan ondorioak eragite aldera. Lau printzipio hauek funtsezkoak lirateke ezintasuna duten pertsonekin jarduteko:

- **Normalizazioa.** Ezgaitasun psikikoa duten pertsonak arreta jaso behar dute erkidegoaren zerbitzu propio eta arrunten bitartez. Hau da, bereziak izan arren, arreta-zerbitzu arruntetan parte-hartu behar dute normalizazioa bermatzeko.
- **Eskolan txertatzea.** Normalizazioa litzateke, hezkuntza-eremuan aplikatuta. Hala, ezgaitasunak duten pertsonak zentro publikoetara joateko eskubidea lukete.
- **Sektorizazioa.** Zerbitzu sozialen zentralizazioaren kontrakoa da. Aldezten da arreta eskaintzen duten zerbitzu horiek beharrak dituzten pertsona horietatik gertu egon behar direla; izan ere, ez du zentzurik behar bat duen pertsonak 100km-tara joan behar izatea behar hori asetzeko. Hala bada, arreta eskaintzen duten zerbitzuak ezgaitasuna duten pertsonen bizilekutik gertu egotean datza.
- **Indibiduazioa.** Arreta pertsonalizatuari egiten dio erreferentzia. Pertsona bakoitzak erantzun idiosinkratiko bat behar du; pertsona bakoitzaren gaitasun eta ezaugarriak egokitu behar da arreta hori.

- LOGSE (1990/1992)

“Hezkuntza Behar **Bereziak(Edo espezifikoa? Berdina da?)**” planteatzen du, defizitaren eredu tradizionaletik Hezkuntza (**Behar**) Bereziaren ereduranzko aldaketa bultzatuz. Kontzeptu honek erreferentzia egiten dio ezgaitasun edo hezkuntza-planteamendu desegoki batengatik ikasle batek izan ditzakeen ikasteko zailtasunei. Behar hauek subjektuaren eta eskola-testuinguruaren arteko interakzioan sortzen dira, eta zerkusia izan dezakete ikaslearen testuinguru soziokulturalarekin edota hezkuntza-historiarekin, adimen-gaitasun handia izatearekin, eta ezgaitasun psikiko edo motorrak pairatzearekin.

Hauek dira LOGSEk aniztasunari egindako ekarpen nagusiak:

- **Galeraren eredua gainditzeko da.** Hezkuntza berezia behar duten ikasleak ez dira soilik urritasuna duten ikasleak, baizik eta hezkuntza behar bereziak dituzten guztiak.
- **Oinarrizko helburu berdinak ezartzen dira denontzat.** Hezkuntza-sistemak baliabideak izango ditu, izaera orokorreko helburuak hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleek ere lor ditzaten. Hau da, ikasle batzuek helburu zehatz horietara heltzeko laguntza gehiago behar duten arren, legeak, doako baliabideak eskaini beharko ditu horretarako.
- **Gaitasun indibidualetara egokitzearen garrantzia azpimarratzen da:** idiosinkrasia.

- Planteamendu kurrikularra

El planteamiento curricular de nuestro sistema educativo aspira a asumir de forma integradora la diversidad, ofreciendo un núcleo de contenidos comunes y mínimos, con los que trata de evitar o retrasar al máximo la homogeneización o segregación de los alumnos.

El actual enfoque curricular se fundamenta en una concepción global del aprendizaje, tratando de desarrollar tanto los conceptos como los procedimientos y actitudes.

Los niveles de concreción curricular garantizan el derecho a las experiencias educativas de todos los alumnos y permiten la autonomía curricular de los centros y equipos de profesores. Éstos son considerados los responsables últimos del desarrollo y aplicación del currículo.

El diseño curricular permite explicitar las intenciones educativas y sirve de guía para llevar a cabo dichas intenciones. Es decir, responde al qué, cómo y cuándo enseñar y evaluar.

En definitiva, podemos decir que en el modelo curricular de la Reforma educativa se propone la educación como oportunidad de aprender, asegurando unos mínimos curriculares comunes a todos los alumnos y permitiendo, simultáneamente, las modificaciones y adaptaciones curriculares precisas para responder a las necesidades especiales de cada uno de los alumnos.

Oinarrizko diseinu kurrikularra	Estatuko biztanleria eskolarraren ezaugarri amankomunak: HZM-ren ardura
Kurrikuluma	Autonomia bakoitzeko ikastetxeak (Erkidegoen ardura)
Ikastetxeko proiektu kurrikularra	Ikastetxe bakoitzeko ikasleen beharrak (Orientazio Departamentuaren ardura)
Ikasgelako programazio kurrikularra	Talde/ikasgela batetako ikaslegoaren ezaugarriak (tutorearen ardura)
Egokitzapen kurrikularra	Hezkuntza-behar espezifikoak dituen ikaslea (irakasle/tutore edo/eta hezkuntza-eragile ugarien ardura)

- **Oinarrizko diseinu kurrikularra.** Espainiar Estatuan, 6-16 urte bitarteko biztanleria eskolarrari zuzendutako planteamendu orokor bat dago, zeina Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzak (HZM) eratzen duen.
- **Curriculum.** *Oinarrizko curriculum* hori, erkidego bakoitzak *curriculum* bihurtzen du. Hau da, erkidego bakoitzak oinarrizko diseinu kurrikularren egokitzapen bat burutzen du. **Adibidez:** Euskadi eta Nafarroan, Euskera irakasgaia gehitzen da, Historia irakasgaien bertako historia propioa gehitzen da...
- **Ikastetxeko proiektu kurrikularra.** Erkidego bakoitzaren *curriculum* hori ikastetxe bakoitzak egokitu egiten du. Hala, curriculum orokor hori testuinguruaren eta ikasleen ezaugarri ambientaletara egokitzen da. Azken batean, ez da berdina Elizondoko ikastetxe txiki bat edo Donostiako ikastetxe handi bat; zer esanik ez bertako ikasleen arteko ezberdintasunen inguruan! Aipatu behar da egokitzapen hau zentroko psikologoak edo orientatzaileak egiten duela.
- **Ikasgelako programazio kurrikularra.** *Ikastetxeko proiektu kurrikularra* ikasgela edo ziklo bakoitzera ere egokitzen da. Honako hau ikasgelako edo zikloko tutoreak egiten du.
- **Egokitzapen kurrikularra.** Ikasgela batean dagoen ikasle batentzat edo batzuentzat planteatzen da. Berauek behar batzuk dituztela antzematen da, eta gure ikastetxea ez denez gai beren ikaskuntza edo irakaskuntza-zailtasunei erantzuteko, ezberdin eskatuko diogu edo ezberdin esku-hartuko dugu haiekin, aldeztatik zehaztutako helburuak lor ditzaten.

Egokitzapen kurrikularretan logopedek, medikuek, psikiatreek... parte har dezakete tutorearekin elkarlanean.

Ikus daitekeen bezala, helburuak edo gaitasunak orokorrenetik partikularrenera joaten dira. Azken batean, helburu nagusia da aniztasunari arreta eskaintzea, hori bermatzeko beharrezko aldaketak emanez.

▪ Egokitzapen kurrikularra

Esan bezala, hezkuntza bakarra da, eta hezkuntza-helburuak berdinak dira ikasle guztientzat, nahiz eta zenbait ikaslek baliabide espezifikoak beharko dituzten.

Hala bada, egokitzapen kurrikularra, curriculumaren moldaketa bat da, ikasle jakin baten ezaugarrietara egokitzeko helburuarekin. Hartara, ikasle bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta egiten da (indibidualizazioaren printzipioa). Beraz, **irakasleriak daukan planifikaziorako eta ekiterako (actuación) estrategia bat litzateke.**

Egokitzapen kurrikular ezberdinak bereizten dira moldatzen dugun elementuaren arabera. Irizpideak hauek izan daitezke: edukia aldatzea (*ZER*), iraskaskuntza aldatzea (*NOLA* eta *ZENBAT*) eta ebaluazioa aldatzea (*NOLA* eta *ZENBAT*).

Laburbilduz, egokitzapen kurrikularra:

- ✓ **Ikasle bakoitzaren beharretara egiten den curriculumaren egokitzapena da.**
- ✓ **Helburua:** ikasle guztientzako **indibidualizazio didaktikoa** posible egitea.
- ✓ **Curriculumaren elementuren baten edo gehiagoren aldaketa** eragiten du (zer, nola eta zenbat irakatsi eta ebaluatu).

• Oinarrizko irizpideak

1) Normalizazioa. Laguntza berezia planteatzen hasi aurretik, galdetu behar diogu gure buruari: “gure ikastetxean badago baliabiderik denontzako baliagarria izan daitekeena?”. Baliabide hori erabiltzea garrantzitsua da, hezkuntza-testuinguru horretan integratuta egongo delako, eta horrek normaltasuna bermatzen duelako. Beraz, ahalik eta integratuen dagoen erantzuna eman beharko da.

LISMI eta LOGSE legeetan jasotzen da irizpide hau. Honen arabera, egokitzapen kurrikularra graduala edo progresiboa izan beharko da; hau da, aldaketak pixkanaka sartuko ditugu. Hala, aldaketa txikiak egingo ditugu, eta beharren arabera, aldaketak sakonduko dira.

2) Ikasle guztientzako hezkuntza-proposamen berdina. Banakoaren programen jatorria ikasgelako programazio kurrikularra da helburu didaktiko orokorre dagokienez, nahiz eta helburu zehatz ezberdinak barneratu daitezkeen. Kasu bakoitzean jasotzen den laguntza-maila da aldatzen dena.

Laburbilduz, egokitzapen kurrikular bat egitean, ikasgelako curriculumak izango da abiapuntutzat, eta hartara, helburu berdinak mantenduko dira, laguntza-maila delarik aldatzen den elementu bakarra.

• Egokitzapen kurrikular motak

- **Subjektu kopuruaren arabera: banakakoak edo taldekakoak.** Normalean talde osoari zuzenduak daudenak ez-esanguratsuak izan ohi dira (motibazio-falta orokorra badago, kasu); eta indibiduo bati zuzendutakoak, esanguratsuak (kulturalki ez badago egokituta, kasu).
- **Aldatzen den curriculumeko elementuaren arabera:**

✚ **Ez-esanguratsuak.** Aldaketa arin eta inespezifikoak lirateke, irakasleak egunerokotasunean egiten dituenak. Normalean metodologia edo ebaluazio-elementuak izain ohi dira. Aldaketa hauek prebentzioaren printzipioari erantzunez egiten dira: beharrak ez agertzeko.

Beraz, ebaluazio-moduari edo estrategiei buruz mintzo gara.

❖ **Egokitzapen estrategikoak.** Ez-esanguratsuak diren egokitzapenen multzo bat litzateke. Bertan aldatzen diren estrategiak espazioari, materialari edo komunikazioari eragiten diete.

✚ **Esanguratsuak.** Helburuak eta edukiak aldatzen dira, eta ondorioz, ebaluazio-irizpideak ere. Oinarrizko curriculumarekin erkatuz, aldaketa handiak txertatzen dira.


Lehenik egokitzapen ez-esanguratsuak burutuko ditugu, eta ez direnean nahikoak, esanguratsuetara joko dugu. Azken neurri hau kasu berezietan soilik aplikatuko da.

ADIBIDEAK:

- a) Helburuen sekuentziazioa aldatzea → **Ez-esanguratsua.**
- b) Hizki handiagoak erabiltzea diapositibetan → **Egokitzapen estrategikoa.**
- c) Gaztelania menperatzen ez duen etorkin bat etortzen da; eta ikasgelaren helburu orokorrak eskatu arren, helburu zehatzak ez zaizkio eskatuko, zenbait eduki kenduz → **Esanguratsua.**

• Zailtasunak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan

Ikasleek zailtasunak ager ditzakete beren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Zailtasun hauek anitzak izan daitezke etiologiaren aldetik, baina inporta zaiguna da zailtasun horiek sortzen dituzten beharrak. Hala bada, ebaluazio bat burutuko da, bai ikasle horiena, bai eta hezkuntza-testuinguruarena. Horrela,(indibiduzio didaktikoa lortu??).....



3.3 Eskola inklusiboa

5. KOADROA. HEZKUNTZA INKLUSIBOA

- Hezkuntza inklusiborako, ikasleen partaidetza handitzeko eta bazterketa gutxitzeko prozesuak behar dira kulturaren, curriculumetan eta herriko hezkuntza-komunitateetan.
- Inklusiorako, hezkuntza-zentroen kulturak, politikak eta praktikak berregituratu behar dira herriko ikasleen aniztasuna zaindu ahal izateko.
- Inklusioa, baztertuak izan daitezkeen ikasle guztien ikasketa eta partaidetzari buruzkoa da, eta ez soilik urritasunak dituztenei edo *hezkuntza premia bereziko*tzat jotzen direnei buruzkoa.
- Inklusioa ikastetxeak hobetzeari buruzko zerbait da, hala irakasleentzat nola ikasleentzat.
- Irisgarritasunerako eta, zehazki, partaidetzarako trabak gainditzeko kezka, baliagarriak izan daitezke zentroak ikasleen aniztasuna zaintzeko dituen muga orokorrak azaleratzeko.
- Ikasle guztiek dute eskubidea euren herrian hezkuntza jasotzeko.
- Aniztasuna ez da konpondu beharreko arazotzat jotzen, guztion ikasketaren lagungarria den aberastasuntzat baizik.
- Inklusioa, ikastetxeen eta ikastetxe horien komunitateen arteko harremana sendotzeari buruzkoa da.
- Hezkuntza inklusiboa gizarte inklusiboaren alderdi bat da.

Delors txostenean (1996) jasotzen da hezkuntza pertsona guziengana hedatu behar dela, eta bazterketen kontra borrokatu beharra dagoela. Halaber, onartzen da zailtasunak ez direla ikaskuntzazkoak edo indibiduoarenak, baizik eta irakaskuntza-ikaskuntzarenak. Ideia honetan oinarrituta, irakaskuntza ez da ikaslearen zailtasunetik planteatzen, curriculumaren ikuspuntutik baizik.

Hala bada, curriculumaren diseinuak hezkuntzaren lau oinarriak barneratu behar ditu:

- **Ezagutzen ikasi.** Gizabanakook ezagutza berriak eskuratzen ditugun moduan jarriko genuke fokua. Ezinbestekoa da denek kultura orokor minimo bat dugula bermatzea: Matematika, Historia... pixka bat. Garatzen goazen heinean, bideratu egiten gara, eta ezagutza konkretuagoak eskuratuko ditugu. Hemen kokatuko genuke metakognitizioa: "ikasten ikasi".
 - Inguratzen gaituena ulertzeko beharrezko tresnak lortzea.
- **Egiten ikasi.** Trebetasunak bereganatzean datza, bizitzako egoera edota arazo ezberdinei aurre egiteko. Honen baitan kokatuko genuke taldean lan egitea.
 - Ingurunean eragiteko aukera izatea.
- **Elkarbizitzen ikasi.** Besteekiko ulermena garatzea litzateke: enpatizatzea, emozio sozioemozionalak garatzea... Are gehiago, besteekiko daukagun elkarmenpekotasuna garatzea litzateke.
 - Giza ekintza guztietan besteekin parte hartzea eta lankidetzan aritzea.
- **Izaten ikasi.** Nortasunaren garapenari dagokio, eta autonomiaz jokatzeko gai izateari egiten dio erreferentzia. Azken batean, izaera bat loratzean datza.
 - Pertsona bakoitza bete-betean garatzeko, pentsatzeko, epaitzeko, sentitzeko eta abarrerako askatasuna ematea.

Delorsen ideia da hezkuntza osotasunean ulertu behar dela, eta aurreko lau kompetentziak garatu behar direla curriculumean.

▪ Zer da inklusioa?

Horrela defini dezakegu inklusioa:

- **Prozesu bat da.** Ikuspegi horretatik, etengabe aniztasunari erantzuteko modu egokiagoak bilatzean datza, diferentziatik ikasten saiatuz.
- **Oztopoak identifikatzen eta ezabatzen jartzen du arreta.** Bai politiketan bai praktika inklusiboetan hobekuntzak planifikatzean datza.
- **Ikasle guztien asistentzia, parte-hartzea eta errendimendua da.** Asistentzia dagokio ikasleak ikasten duen lekuari, presentziaren ehunekoari eta puntualtasunari. Parte-hartzea, berriz, ikasleen iritzia kontuan hartuta eskolan daudenean haien esperientziaren kalitateari dagokio. Eta errendimendua dagokie eskolako programan zehar ikasleek izandako eskola-emitzei.
- **Arreta berezia jartzen du baztertuta izateko arriskuan edo errendimendu ezin hobea ez lortzeko arriskuan dauden ikasle taldeengan.** Haien inklusioa lortzeko beharrezko neurriak hartu behar dira.

Ez da berdina parte izatea edo parte hartzea; bi hauen arteko ezberdintasuna da integrazioa eta inklusioa bereizten dituenak. Integrazioan, berezia den pertsona bat egokitu egiten da gainerakoen baldintzetara. Aitzitik, inklusioan, integratua egoteaz gain, gai izan behar da besteekin maila berean elkarrekintzan aritzeko, aukera berdinak izan behar ditu parte-hartzeko, baldintza berdinak bermatu behar zaizkie... Hala, inklusioan, ezberdintasuna balio bat bezala ulertzen da, eta ez arazo bezala.

Inklusibitatea 1990. urtean hasten da LOGSE legearekin batera. Esaten baitu **integratu** egingo ditugula hezkuntzan. Adibidez: eskoletan, 6-16 urte bitarteko behar bereziak dituzten haurrek hezkuntza zentro horietara joateko eskubidea aitortzen zaie. Inklusioan, oraindik ere gauza bat akastun dago: gizabanako hori gehiengoaren errealitatera egokitu behar da. Hala, hezkuntza-prozesua haientzako ez da esanguratsua; zeren hezkuntza-prozesua gehiengoarentzat (normalentzat) zuzenduta dago. Hartara, GUZTIOI zuzendutako hezkuntza-prozesu bat gauzatu beharko litzateke; eta ez gehiengoari zuzendutakoa.

▪ Hezkuntza inklusiboaren oinarriak

- **Aniztasuna onartzen duten ikastetxeak.** Ikastetxeek aniztasuna balioesten eta txalotzen dute, giza eskubideak bultzatuz eta diferentziak errespetatuz. Nahiz eta hasieran pentsatu eskabidea ahalmen-urritasuna duten pertsonen bakarrak dagokiela, gaur egun ikuspegi hori gaindituta dago eta aniztasunaren alde egiten da aberastasun gisa.

Adibidez: kulturarteko hezkuntzari buruz geroz eta gehiago hitz egiten da, aniztasun kulturalaren balioa onartuz, eta interakzioa gako moduan nabarmentzen da, pertsona bakoitza onartuz eta komunitateko partaide senti dadin lan eginez. Beraz, eskola inklusiboaren eredu kulturarteko hezkuntzarekin lotuta dago, lehena bigarrena aberasten saiatzen delako.

- **Curriculum zabala, komuna eta malgua.** Eskolan curriculum bakar bat egongo da ikasle guztientzat, nahiz eta curriculum horretan oinarritutako aldaketa indibidualak onartu. Ikasleek modu desberdinean ikasten dutela onartzea nahitaezkoa da, eta irakasleek ikasteko testuinguru eta metodo desberdinak planteatu beharko lituzkete. **Maila anitzeko curriculum**a aipatzen da, eta horrek aldaketak eskatzen ditu curriculumaren esentzian. Honi

jarraki, ikasleek aukera dute modu batean edo bestean lan egiteko, irakasleak bide ezberdinak proposatzen baitizkie. Beraz, maila anitzeko curriculuma planifikazio-modu orokor bat litzateke, zeregin bat planteatzeko modu ezberdinak daudela onartzen duena, eta modu hauen arabera, jarduera ezberdinak planteatzen dira.

Ikasle guztientzat baliagarriak diren ikasteko estrategia praktikoek alde egiten ere saiatzen da. Hezkuntza inklusiboaren alde egiten duten hiru estrategia dira taldeko ikaskuntza kooperatiboaren ereduak, kideekin ikasteko estrategiak, eta esperientzian oinarritutako irakaskuntza. Ikasgela inklusiboetako irakasleak geroz eta gehiago urruntzen dira testuliburuetatik, eta ikasteko metodo kooperatiboaren alde daude, arazoaren konponketaren alde.

- **Irakaskuntza eta ikaskuntza interaktiboa.** Irakasleak, agintzetik, ikasteko gida izatera pasatzen dira. Hala bada, irakasleak ikaslea gidatu behar du bere ikaskuntza-prozesuan. Horrek eskatzen du horrelako irakaskuntza eta ikaskuntzaren aldeko estrategiak garatzea. Alde batetik, ikasgeletan geroz eta nabariago izaten da **teknologia berrien erabilera**, eta horrek ikasteko estilo eta erritmo desberdinetara egokitzen laguntzen dio irakasleari. Beste alde batetik, **lankidetzak** da gakoak eskola inklusiboan, bai nagusien artean bai ikasleen artean.

Adimen anizkuna ere onartzen da, beti pertsona berberak izan ez daitezela laguntza jasotzen edo ematen dutenak. Hau da, kontuan izan behar da kideek hezkuntzan eragiten dutela, eta eskolak ekidin egin behar du beti pertsona bera izatea laguntza jasotzen duena; adibidez, ahalmen-urritasuna duten pertsonen kasuan gertatzen den gisan.

- **Lan kooperatiboan eta eskolan zentratzen den laguntza.** Laguntza ikasle bakar batengan edo ikasleen talde zehatz batean zentratu beharrean, eskolan fokatu behar da erakunde gisa. Eta laguntza hori lankidetzan oinarrituta egin behar da, benetan oinarritzak delako hezkuntza inklusiboaren ikuspegian.
- **Gizartearen sektore guztien arteko lankidetzak.** Komunitatearekin lotura izatea beharrezkoa da hezkuntza-eskaintza aldatzeko. Eskola inklusiboa irakasleen, ikasleen eta familien arteko zubiak sortzen arduratzen da, eta ikastetxearen antolakuntza-bizitzan inplikazioa izateko aukerak ematen ditu. Baina, eskolak ez du irekita egon behar soilik gurasoek parte hartzeko, baizik eta komunitatearentzat ere irekita egon beharko luke.

Hala, **ikasle-komunitate**ez mintzo gara: eskola, gurasoak, udala, inguruko enpresak, erretiratuak, auzokoak...

Azken finean, eskola inklusiboaren gakoetako bat da pertsona guztientzako eskola irekiaren alde egitea, bakoitzak behar dituen baliabideak eta hezkuntza-jokabideak eskainiz eta hainbat eragileren artean parte hartuz (eskola, familia eta komunitatea).

***Garrantzitsua.** Inklusioan arreta berezia jartzen da arriskuan dauden taldeei. Hau ez da utopikoa: argi dago pertsona batzuek ezaugarri jakin batzuk izateagatik arrisku-talde baten baitan daudela: emakumeak, homosexualak, etorkinak... Beraz, eskola inklusiboak arrisku-egoeran dauden pertsonen arreta berezia eskaintzen die, baztertuak izateko arriskuan daudelako.

▪ Aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa (Eusko Jaurlaritza, 2012)

- Eskola inklusiboa egituratzeko estrategiak

INDEXean aipatu bezala, eskola inklusiboa egituratzeko edo bermatzeko hiru estrategia gauzatu behar dira:

- **Kultura inklusiboak sortzea.** Hezkuntza-proiektuak ezartzeari dagokio. Hezkuntza-proiektu hauek zuzendaritza-taldeak, orientatzaileak, irakasleak, gurasoak, ikasleak... idazten dute, non batez ere **baloreak** zehazten diren, bai eta nola heldu hauetara.

Dimentsio honen xedea da **komunitate seguru, abegikor, lankidetzazko eta estimulagarria sortzea** norbanako bakoitza balioetsia izan dadin. Irakasle, ikasle, eskola-kontseiluko kide eta familia guztiek partekatutako inklusio-balioak garatu nahi dira. Eskola-kultura horretatik eratorritako printzipioak dira ikastetxe bakoitzeko eta eguneroko erabakiak hartzeko gida.

Laburbilduz, ikastetxeak komunitate bat izan behar du; hau da, antolatutako testuinguru bat, ikasleei harrera egin eta hainbat motatako esperientzia aberasgarriak biziaraziko dizkiena. Ikasle bakoitza den bezala onartu eta tratatu behar da, eta jakina, ikasle guztiek zuzenean hartu behar dute parte komunitate horretan. Helburu honetan zuzendaritza-taldeak berebiziko garrantzia du.

- **Politika inklusiboak lantzea.** **Baliabide**ez mintzo gara. Hemen kokatuko genituzke metodologia motak, teknologia berrien erabilpena, hirueletasuna edota ezagutza zientifikoaren garapena. Halaber, eskola, komunitateko kide guztientzat irisgarria izatea da helburua: zailtasun motorrak dituzten ikasleak eskolara sar daitezzen arrapala bat jartzea. Politika inklusiboak landuta dituen eskola batean, irakasleak aurki daitezke familiei harrera egiten eskolako sarreran.

Dimentsio honen bidez ziurtatu nahi da inklusioa berriztapen-prozesuaren bihotzean egotea, politika guztiak ziprztinduz; hartara, ikasle guztien ikasketa eta partaidetza hobetu dadin. Testuinguru horretan, «laguntzatat» jotzen dira ikastetxeek ikasleen aniztasuna zaintzeko gaitasuna handitzeko egiten dituzten jarduera guztiak.

- **Jarduera inklusiboak gauzatzea.** Dimentsio honen bidez bilatzen da ikastetxeetako praktikak kultura eta politika inklusiboen isla izatea. Garrantzitsua izango da **irakasleen gogoeta** bultzatzea eguneroko praktika bezala. Noizbehinka irakasleak elkartu beharko lirakeke inklusioari buruz hitz egiteko, eta hartara, inklusioa gertatzeko zein baldintza egon beharko lirakekeen zehazteko.

Ziurtatu nahi da ikasgelako eta eskolaz kanpoko jarduerak ikasle guztien partaidetza eragiten dutela, eta kontuan hartzen direla ikasleen eskola-inguruneaz kanpoko ezagutza eta esperientzia. Langileek ikastetxearen eta tokiko komunitateen baliabideak mobilizatzen dituzte, guztion ikaskuntza aktiboari eusteko.

Beraz, eskola inklusiboan, irakasleek eta profesionalak elkarlanean jardungo dute, ikaskuntza-metodoak ikasle guztien beharrei erantzungo die, eta irakasleek prestakuntza jasoko dute inklusioaren inguruan.

4. KOADROA. DIMENTSIOAK ETA ATALAK

A dimentsioa: KULTURA inklusiboa sortzea

1. Komunitatea eraikitzea
2. Inklusio-balioak ezartzea

B dimentsioa: POLITIKA inklusiboak lantzea

1. Guztiontzako eskola garatzea
2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

C dimentsioa: PRAKTIKA inklusiboak garatzea

1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea
2. Baliabideak mobilizatzea

- Eskola inklusiboaren lehentasunak

Eskola inklusiboaren xede nagusia zera da: ikasle guztiek beren gaitasun eta ahalmenak ahalik eta gehien garatzea, proiektu pertsonal eta profesional bat eraikitzeko gai izan daitezen. Horretarako, ikasle guztiek hezkuntzan sartzeko eta horrekin jarraitzeko aukera izango dutela bermatu behar da, eta kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaini, aukeraberdintasunean oinarritutakoa.

Xede hori lortzeko, honako lehentasun orokor hauek nabarmenduko dira:

- **Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea.** Eskainiko dugun hezkuntza-erantzuna ikasle bakoitzaren beharretara egokituta egongo da, eta aniztasunari erantzuna emateko behar diren banakako neurriak abiarazteko konpromisoa hartuko dugu, bere gaitasunen garapena bermatzeko.
- **Eskola-esparru arruntetik jardutea.** Eskola-esparru arruntetik jardun behar da hezkuntza-sistemaren funtsezko elementuen gainean (curriculumarekin, metodologiarekin eta antolaketarekin lotutako elementuak), eta arreta berezia jarriko dugu ikasle guztien parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzen duten irakaskuntza-ikaskuntza estrategietan.
- **Irakasle guztiak, gainerako langileak eta familiak inplikatzeko.** Beren gain hartu behar dute hezkuntza inklusibo bat lortzeko erantzukizuna, eta aniztasunari hezkuntza-erantzuna emateko ikuspegi berri horren protagonista etiko direla sentitu behar dute. Hortaz, haien lanbide(gurasoak lanbide?)-garapenari eta -trebakuntzari lagunduko dieten estrategiak abiarazi beharko dituzte hezkuntzako langile guztiek, eta haien arteko koordinazioa eta lankidetzatza gauzatzeko egiturak sortu.
- **Haurren eta esku-hartzearen beharrak garaiz balioestea.** Hezkuntza-sistemak ahalik eta azkarren aztertu beharko ditu premia horiek, baliabide pertsonalak eta materialak jarri beharko ditu guztien eskura, curriculumarekin egokitu beharko du, irakasleei edo tutoreei erabakiak hartzen parte hartzeko eskatuko die, ohiko irakasleei zein langile espezializatuei prestakuntza emango die, eta sektore arteko koordinazioa hobetuko du.
- **Ikasteko aukera errealak ematea gizartetik baztertuak izateko arrisku handiena duten kolektiboak.** Eskola inklusiboak bermatu behar du gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden ikasleen presentzia, parte-hartzea eta lorpenak, eta modu positiboan jardun behar du ikasle horiek ahalik eta gaitasun gehien gara ditzaten arlo pertsonalean eta eskola- eta gizarte-arloan.

- INDEX: eskola inklusiboa ebaluatzen eta hobetzeko gida

INDEXaren xedea da hezkuntza inklusiboa ebaluatzea eta hobetzea, ikaskuntza-komunitate osoaren parte-hartzearen bitartez. Halaber, bere helburu nagusia da eskoletan ikaskuntzaren eta parte-hartzearen garapenean laguntzea. Horretarako, ikastetxe horretan zein baliabide eta abar dituzten aztertuko da, hobetzeko alderdiak ezarriko dira, eta prozesua berriz hasiko da. Aipatu behar da prozesu honetan ikaskuntza-komunitateko partaide guztien iritzia aintzat hartzen direla (irakasleak, ikasleak, familiak...); eta hortaz, parte-hartzailea litzateke.

INDEXaren prozesuak berak inklusioa hobetzen laguntzen du, ikastetxearekin lotura duten pertsona guztiak hartzen baititu kontuan. Prozesua, materialekin lehenengo konpromisoa hartzen den unean hasten da. INDEXa, komunitateko kide guztien ezagutzan oinarrituta eraikitzen da, eta haren baldintza berezietara egokitzen da. Era horretan, komunitate osoa, hobetze-prozesuaren partaide eta protagonista sentitzera animatzen du. Urrats hau izan


daiteke zailena. INDEXarekin egindako lanaren ondorioz sartutako aldaketek irautea nahi bada, bai irakasleek bai ikasleek ikaskuntzarako eta irakaskuntzarako hobekuntzak izan direla nabaritu behar dute. Eta aldaketa horiek ikastetxearen kulturaren zati bihurtu behar dute.

INDEXaren lan-prozesuak bost fase ditu:

1. **Prozesua hasi.** Lehenik, hobetze-planaren arduraduna izango den batzar edo koordinazio-talde bat sortu behar da. Talde horretako kideei dagokie ikastetxe-komunitatea sentsibilizatzea (informatzeaz gain). Koordinazio-taldearen beraren ebaluaziotik hasiko dira, haien buruak ezagutzen: beren iritziak, usteak... Eta ondoren, beste taldeekin (ikasleak, gurasoak...) hitz egiteko prestatuko dira.
2. **Ikastetxea aztertu (hiruhileko erdia).** Hezkuntza-zentroaren diagnostiko bat egiten da, eta lehentasun batzuk ezartzen dira, gehiago landu behar diren aspektuak zehazteko. Beraz, hobetu behar diren gauzak identifikatzen dira.
3. **Hobetzeko plana prestatu (hiruhileko erdia).** Ikastetxea hobetzeko plan bat prestatzen da, 2. etapan identifikatutako helburu inklusiboak eta berariazko lehentasunak bilduz. Halaber, INDEX tresna eskolaren planifikazioan sartzen dugu.
4. **Hobetu beharreko alderdiak ezarri.** Berriztapenak ezarri eta lagundu egiten dira; hau da, zehaztutako lehentasunak praktikan abiatzen dira, jardueren bitartez. Garrantzitsua da praktika horiekin ematen diren aurrerapenak identifikatzea prozesuan zehar.
5. **Prozesua berrikusi.** Egindako aurrerapenak berrikusi egiten dira, eta hurrengo ikasturteari begira, lehentasun berriak identifikatzen dira; izan ere, ikastetxeko kultura, politika eta praktikak aztertu ahala, inklusioaren esparruan lehenago detektatu gabeko aldaketarako beharrak ager daitezke.

***Aipagarria.** Lehenengo 3 etapak era egokian bete behar dira ikasturtea amaitu baino lehen, hurrengo ikasturteko hobetze-planean lehentasunak sartu ahal izateko. **4. eta 5. etapak urteko plana hastean burutuko dira.**

***Aipagarria.** Benetan lortzen badugu aniztasunari arreta eskaintzea eta hezkuntza inklusiboa bermatzea, INDEXa balio bat bihurtuko da prozesuaren berrikustearen baitan.



7. KOADROA. INDEXAREN LAN-PROZESUA

1. etapa: *Indexaren* prozesua hastea (hiruhilabete erdia)

Koordinazio-taldea eratzea
Ikastetxea *Indexaren* gainean sentsibilizatzea
Taldearen ezagutzak aztertzea
Adierazleak eta galderak erabiltzeko prestatzea
Beste talde batzuekin lan egiteko prestatzea

2. etapa: Ikastetxea aztertzea (hiruhilabete bat)

Irakasleen eta eskola-kontseiluko kideen ezagutza aztertzea
Ikasleen ezagutza aztertzea
Familien eta komunitateko erakundeetako kideen ezagutza aztertzea
Hobetu beharreko lehentasunei buruz erabakitzea

3. etapa: Orientazio inklusiboa duen ikastetxea hobetzeko plana prestatzea (hiruhilabete erdia)

Indexa eskola-plangintzako prozesuan sartzea
Hobetzeko planean lehentasunak sartzea

4. etapa: Hobetu beharreko alderdiak ezartzea (etengabea)

Lehentasunak praktikan jartzea
Hobetzeko prozesuari eustea
Aurrerapena erregistratzea

5. etapa: *Indexaren* prozesua berrikustea (etengabea)

Aurrerapenak ebaluatzea
Indexarekin egindako lana berrikustea
Indexaren prozesuarekin jarraitzea